

GOBERNU BATZARRA

2014. 01. 24

Alkatea:	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamalauko urtarrilaren hogeita lauan, goizeko 10:00etan
Ibai Iriarte San Vicente	Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta
Zinegotziak:	alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
Lore Agirre Zipitria	1.- Aurreko akta onartzea.
Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez.	2.-Tolosako emakume eta gizonen berdintasunerako III. Plana eta diagnostikoaren proiektua kontratatzeko espedientea onartzea.
Idazkaria:	
Jose Luis Unanue Ugalde	3.- Euskal Herria 1-B eraikinean zuzkidurako alojamenduak egiteko kontratuaren 2. ziurtagiria (169/13 faktura).
Kontuhartzaitzako Teknikaria:	
Paulino Alonso Eraso	4.-Tolosako Kondeaneko Aldapa 11ko Araubide Bereziko Etxebizitza Tasatuak Esleitzeko oinarriak.
	5.-Tolosako udalaren eta "la Caixa fundazioaren" arteko lankidetzahitzarmena.
	6.- 40/2013 zenbakia duen faktura-zerrenda.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2014ko urtarrilaren 17an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- Tolosako emakume eta gizonen berdintasunerako III. Plana eta diagnostikoaren proiektua kontratatzeko espedientea onartzea.

Berdintasun teknikariak txostena egin du non agertzen duen **Tolosako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana eta Diagnostikoaren** egitasmo edo proiektuaren justifikazioa.

Aipameneko proiektua lizitazio publiziterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez kontratatzeke klausula administratibo partikularren agiria prestatu da eta espedientea osatu.

Beraz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- Onartzea “**Tolosako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana eta Diagnostikoa**”ren proiektua.

BIGARRENA.- Onartzea “**Tolosako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana eta Diagnostikoa**” proiektuaren lizitazioa publiziterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez kontratatzeke espedientea.

HIRUGARRENA.- Onartzea onartutako proiektua gauzatzeko dagokion gastua.

LAUGARRENA.- Onartzea baldintza administratibo partikularren agiria, proiektu hori prozedura negoziatua publiziterik gabe kontratatzeke. Ezaugarri hauek ditu kontratuak:

Epea: 2014ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarte.

Prezioa: 35.000€ hilero BEZa barne, bi ataletan banatuta:

BOSGARRENA.- Kontratua bi lotetan banatzea:

- **Diagnostikoa:** Gehienez, 14.462,81€ eta %21 B.E.Z.A.ri dagozkion 3.037,19€. Guztira: 17.500 euro.
- **III. Berdintasun Plana:** Gehienez, 14.462,81€ eta %21 B.E.Z.A.ri dagozkion 3.037,19€. Guztira: 17.500 euro.

III. Berdintasun Planaren faktura eta Diagnostikoarena, abuztua izan ezik, hilero aurkeztuko dira,

SEIGARRENA.- Adjudikatzeko prozedurari hasiera ematea, dagokion gonbidapenak eginez.

3.- Euskal Herria 1-B eraikinean zuzkidurako alojamenduak egiteko kontratuaren 2. ziurtagiria (169/13 faktura).

Bi mila hamahiruko urriaren 4an egindako bilkuran Udal Gobernu Batzarrak Lurgoien, S.A., enpresari adjudikatu zion Euskal Herria 1-B eraikinean zuzkidurako alojamenduak egiteko kontratua, 1.565.052,72 (BEZ barne) izan zelarik esleipenaren zenbatekoa.

Bi mila hamahiruko abenduaren 10ean, Obra zuzendaritzak 1. ziurtagiria aurkeztu zuen, 54.954,34 €-koa; eta aurtengo urtarrilaren 10ean, 2. ziurtagiria, 74.132,44 €-koa.

Urtarrileko ziurtagiria aztertuta, eta kontuan izanik Udal teknikoak oniritzia eman diola aipatutako ziurtagiriari, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Euskal Herria 1-B eraikinean zuzkidurako alojamenduak egiteko kontratuaren bigarren ziurtagiria (Lurgoien, S.A., enpresaren 169/13 fak. zkia), 74.132,44 €-koa (BEZ barne).

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Lurgoien, S.A., enpresari eta Kontuhartzaitzari.

4.- Tolosako Kondeaneko Aldapa 11ko Araubide Bereziko Etxebizitza Tasatuak Esleitzeko oinarriak.

Bi mila eta hamahiruko abenduaren 20an, Gobernu Batzarrak erabaki zuen onartzea Tolosako Udalaren eta Promotora Iparra Berri, S.L., enpresaren artean Kondeaneko Aldapan 11 etxebizitza tasatu eraikitzeke sinatu beharreko hitzarmen proposamena.

Horiek horrela, bi mila hamalauko urtarrilaren 13an aipatutako hitzarmenasinatu da. Hitzarmenaren lehenengo estipulazioan adierazten denaren arabera, Promotora Iparra Berri, S.L., enpresak prezio tasatuko 11 etxebizitza sustatu, eraiki eta besterenduko ditu eta haien eranskin diren gainerako elementuak. Tolosako Udalak, berriz, eremu horretan eraikiko diren prezio tasatuko etxebizitzak erregulatu, araubide espezifiko ezarri eta adjuikatuko ditu.

Horrenbestez, Tolosako Kondeaneko Aldapa 11ko araubide bereziko etxebizitza tasatuak esleitzeko oinarri proposamena aurkeztu zitzaion hirigintza Batzordeari, 2013ko azaroaren 15ean, eta batzordeak diktaminatu zuen.

Laburbilduz, hauek dira oinarrien ezaugarri nagusiak:

Guztira, 11 etxebizitza izango dira esleitu direnak eta ezaugarri hauek dituzte:

- Bi etxebizitza, beheko solairuan kokatuak. Banaketa: sukaldea, jangela-egongela, hiru logela eta bi komun.
- Bederatzi etxebizitza, 1., 2. eta 3. pisuetan kokatuak. Banaketa: sukaldea, jangela-egongela, bi logela eta komun bat.

Interesatuei dagokionez, etxebizitzak esleitzeko zozketan parte hartu ahal izango dute, oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunetik hilabeteko epean etxebizitza tasatuen eskatzaileen udal erregistroan izena ematen dutenek bakarrik.

Diru-sarrereri dagokionez, etxebizitzak esleitzeko prozesuan parte hartzeko, bizikidetzaren unitateek 9.000,00 euro eta 52.500,00 euro arteko diru-sarrerak eduki behar dituzte.

Aurreko guztia ikusita, eta Hirigintzako batzordeak jaulki duen diktamenarekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- Kondeaneko Aldapa 11ko araubide bereziko etxebizitza tasatuek esleitzeko oinarriak onartzea. Espedietean jasota geratzen dira onartutako oinarriak.

BIGARRENA.- Espedienteari hasiera ematea Oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz. Esleipenean parte hartzeko eskabidea eta gainontzeko agiriak hilabeteko epean aurkeztu beharko dira, oinarriak argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Iparra Berri, S.L., promotoreari.

5.- Tolosako udalaren eta “la Caixa fundazioaren” arteko lankidetzaren hitzarmena.

“La Caixa Fundazioak” sustatutako programa adinekoen partaidetza aktiboa bultzatzeko helburuarekin, lankidetzaren hitzarmen bat sinatu zen 2013ko urtean.

Ikusita balorazioa oso positiboa izan dela, hitzarmen berri bat onartzea proposatu dute Gizarte Politikak eta osasuna departamendutik. Programa dohainik da.

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta.

E R A B A K I D U

LEHENA.- Tolosako Udalak eta “La Caixa Fundazioa”ren artean hitzarmen berri bat gausatzea, adinekoen partaidetza aktiboaren programa bultzatzeko, 2014ko urtarrilaren 1tik, 2015eko abenduaren 21 arte.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea “La Caixa” fundazioari eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari.

6.- 40/2013 zenbakia duen faktura-zerrenda.

Kontuhartzaitzak 40/2013 faktura zerrenda aurkeztu du; 98.433,61 €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 40/2013 faktura zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Gai zerrendatik aparte eta daukan premia kontuan izanik, ondoren aipatzen den gaia tratatzen da:

Tolosako Udalerrian auzokonposta programan laguntzeko zerbitzuaren kontratazioa.-

Tolosako udalak 2013. urtearen hasieran jarri zituen auzo-konposta egiteko bi gune pilotuak martxan; bata, Alliri auzoan eta, bestea, Izaskunen. Honi, Larramendik jarraitu zion eta, azkenik, Amarotzen ezarri da. Egun, guztira, 150 familia daude programan parte hartzen.

Iaz 4 guneren kudeaketa egiteko Goroldi enpresa kontratatu zen. Enpresa honek, alde batetik, konpostagailuak egituratzailearekin betetzen zituen eta, bestetik, konpost egina hustu eta trituratu. Gainera, enplegu plan baten bitartez, pertsona bat kontratatu zuen 6 hilabetez (2013ko uztailetik abendu bukaera arte), guneen jarraipen teknikoa eta mantenua egiteko eta parte hartzaileekin komunikazioa bideratzeko.

Herritarrek proiektuan parte hartzeko azaldu duten interesa dela eta, udalak epe laburrean 4 gune berri ezartzeko asmoa du. Beraz, 2014. urtean zehar, Tolosan 8 auzokonpost-gune egongo dira martxan.

Hau dela eta, gune berrien ezarpenean laguntzeko eta gune guztien funtzionamendu egokia bermatu ahal izateko zerbitzua kontratatu nahi da.

Zerbitzua kontratatzeko beharra azaldu du Ingurumen teknikariak egindako txostenean. Estudio ekonomikoa ere egin du.

Aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosako Udalerrian auzokonposta programan laguntza zerbitzuaren kontratazio espedientea onartzea. Kontratazioa prozedura irekia bidez egingo da eta lizitazio-tipo hau du: hogeita bat mila zazpiehun eta laurogei euro, BEZa barne.

BIGARRENA.- 21.780€-ko gastua baliatzea dagokion partidaren kargura.

HIRUGARRENA.- Onartzea Klausula Administratibo Partikularren Plegua, aipameneko zerbitzua kontratatzeko, prozedura irekia bidez.

LAUGARRENA.- Adjudikatzeko prozedurari hasiera ematea eta, horretarako, lizitazioaren deia egitea Gipuzkoako Aldizkari ofizialean eta kontratatzailearen profilean.

.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 11:15etan.

ALKATEA

IDAZKARIA